

Helburu didaktikoak	Ebaluazio adierazleak
1. Askotariko testu-generoetako testuak aztertuz, haien testu-sekuentziak identifikatu, eta testuok luzatu horretarako estrategiak aplikatuz.	<p>1.1. Eskainitako testuen komunikazio-asmoa inferitzen du.</p> <p>1.2. Eskainitako testuetan, informazioa edota ideiak antolatzeko erabilitako testu sekuentzia nagusiak inferitzen ditu.</p> <p>1.3. Testuak luzatzeko eskainitako informazioak eta testuak egoki erlazionatzen ditu; eta testu bakoitzari dagokion informazioa egoki txertatzen du.</p>
2. Argudio-diskurtsoak sortzean, nork bere baieztapena justifikatzeko, arrazoi mota desberdinak baliatu.	<p>2.1. Eskatutako argudioak identifikatu eta nabarmentzen ditu testuan</p> <p>2.2. Emaniko tesia defendatzeko, bi argudio baliagarri sortzen ditu.</p>
3. Aztertutako testu-generoak oinarritzat hartuz, finkatutako komunikazio asmoari erantzuten dion testua planifikatzeko erabakiak hartu.	<p>3.1. Komunikazio-egoerako elementuen ezaugarriak inferitzen ditu.</p> <p>3.2. Komunikazio-egoeraren baitan ideiak sortzen ditu.</p> <p>3.3. Informazioaren baliagarritasuna eta fidagarritasuna baloratzen du.</p>
4. Proposatutako zereginetan, testuaren koherentzia eta kohesioa bermatzen duten hizkuntza-baliabideak aplikatu.	<p>4.1. Jarraipen tematikoa bermatzeko erabilitako hizkuntza-baliabideak identifikatzen ditu: erreferenteak eta hari erreferentzia egitekoak.</p> <p>4.2. Emaniko irizpideak kontuan hartuz, egoki bereizten du testua paragrafoetan</p> <p>4.3. Testuaren hutsune bakoitzean puntuazio-ikur egokia jartzen du, erabilera hori justifikatzeko arau egokia adieraziz.</p> <p>4.4. Testuko ideiak lotzeko, kohesiorako hizkuntza-baliabideak erabiltzen ditu (jarraipen tematikoa, paragrafoa, puntuazio-markak, etab. )</p>
5. Elkarlaneko berrikusketa-prozesuan errespetuz eta arduraz parte hartuz, hobetzeko iradokizunak eman; eta kideek emandako iradokizunak baloratu ondoren, nork bere lanak hobetzeko erabakiak hartu eta aplikatu.	<p>5.1. Ekintzari lotuta, haren gauzatzeak eskatzen dituen ikasitakoa alderdiak esplizitu egiten ditu: testuen berrikusketarako kontrol-zerrenda osatzen du.</p> <p>5.2. Finkatutako irizpideekiko lorpenen identifikazioa egiten du.</p> <p>5.3. Kideari hobetzeko iradokizunak egiten dizkio, baita kideak norberari egindakoak baloratu ere.</p>
6. Euskaltzaindiako zenbait arauen ezagutza landu.	6.1. Irakasleak ikasle bakoitzari Euskaltzaindiak argitaratutako araua(k) emango dizkio. Ikasleak gelan ahozko azalpena egingo die ikaskideei. Erregistro-orrian gordetzeko ardura izango du. Ebaluazioz ebaluazio proba ebaluagarria egingo du ezagutzak neurtzeko.
7. Irakurzaletasuna sustatzeko hainbat eleberri eskaini eta elkarreraginean arituz tertulia literarioa gauzatu.	<p>7.1. Ikasleek, proposatutako liburu artean bat hautatu eta tertulia literarioa gauzatzeko taldea osatzen dute. Tertulia literarioa gauzatzen dute.</p> <p>7.2. Ikasleak haututako liburu horren harira, ohar kritikoa egiteko aukera izango du.</p>
8. Zuzentasun gramatikala eta ortografikoa aplikatzen ditu ahozko nahiz idatzizko	8.1. Ahoz nahiz idatziz ekoizten dituen testuak gramatikalki zuzenak dira.

ekoizpenean.

8.2. *Idatzizko testuetan ortografiari erreparatzen dio eta zuzenketak bideratzen ditu.*